



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko ekainaren 23a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Udal montepioaren defizitaren banaketari buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Udal montepioaren defizitaren banaketari buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak udal montepioaren defizitaren banaketari buruzko aholku-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Udal montepioaren defizitaren banaketari buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3 or.).
- II.** Udal Montepioa. (4. or.).
 - II.1. Pasiboen sistemei (pentsioak) buruzko alderdi orokorrak Foru Komunitatean (4. or.).
 - II.2. Udal Montepioaren arau-esparrua (4. or.).
 - II.3. Udal Montepioaren banaketaren aplikazio praktikoa (7. or.).
- III.** Ondorio orokorra (9. or.).
- IV.** Ondorioak (10. or.).
 - IV.1. Alderdi orokorrak (10. or.).
 - IV.2. Datu orokorreari dagokienez (11. or.).
 - IV.3. Aktiboek defizitaren banaketan duten eragina (14. or.).
 - IV.4. Udal montepio guztien finantzaketa (15. or.).
 - IV.5. Balizko aukerei buruzko zenbatespenak (17. or.).

I. SARRERA

2016ko urriaren 17an, Lizarrako Udaleko urriaren 6ko Osoko Bilkuraren erabaki bat sartu zen Nafarroako Kontuen Ganberaren erregistroan; haren bidez, txosten bat eskatzen zitzaion Ganberari Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren defizitaren banaketari buruz eta horrek udal aurrekontuetan etorkizunean izanen duen eraginari buruz.

Urriaren 27an, Ganberaren erregistroan sartu zen Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarren urriaren 24ko erabakia, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak eskatuta hartutakoa, zeinaren bidez *“Kontuen Ganberari eskatzen baitzaio fiskalizazio txosten bat egin dezan Montepioaren egungo egoerari buruz eta hori dela-eta udaletan egun dagoen arazoari konponbidea emateko moduari buruz.”*

Lizarrako Udalak, bere erabakian, datu batzuk ematen ditu defizita azken hiru urteetan izan duen banaketaren bilakaerari buruz eta horrek Lizarran izan duen eraginari buruz. Parlamentuaren erabakiak ez du datu gehiagorik ematen.

Eskaera horiek betetze aldera, Kontuen Ganberaren 2017rako urteko fiskalizazio-programan sartu zen aholkularitza-txosten hori egitea.

Udal Montepioaren defizita, azken hamar urteetan, urtean 18 milioi eurokoa izan da batez beste.

Nafarroako Kontuen Ganberak zenbait txosten egin du, zeinetan honako hauek aztertu baititu: Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen montepioen arazo orokorrak¹; Foru Komunitateko administrazioaren eta udal administrazio orokorraren montepioei atxikitako langile pasiboaren nominaren kudeaketa (2005)², eta Tokiko Sektore Publikoari buruzko 2003ko ekitaldiko txostenean udal montepioari buruz egindako analisi bat³.

Lana egiteko, Kontuen Ganberaren arestian aipatutako txostenez gainera, Montepioaren araudia eta defizita 2005etik udalen artean nola banatu den aztertu ditugu. Gainera, zenbatespen batzuk egin ditugu Montepioaren defizitaren balizko banaketari buruz, zenbait aukeretatik abiatuta. Alderdi jakin batzuetarako, Iruñeko, Tafallako eta Tuterako udaletako montepio propioak ere aintzat hartu ditugu.

Zehaztu beharra dago gure analisia defizita zehazteko moduan eta haren geroko banaketan zentratu dela.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrenean, udal montepioaren deskribapen orokorra ematen dugu: eratzea, funtzionamendua eta defizita udalen artean banatzeko sistema. Hirugarrenean, lanari buruzko laburpen orokor bat egiten dugu. Azkenik, laugarrenean, lana garatuz erdietsi ditugun ondorioak azaltzen ditugu.

Azterketa lana otsailetik apirilera egin zuen auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Gizarte Prestazioen Zerbitzuko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

¹ 2001eko otsailaren 16ko eta 2002ko ekainaren 24ko txostenak.

² 2005eko uztailaren 18ko txostena.

³ 2006ko urtarrilaren 17ko txostena.

II. UDAL MONTEPIOA.

II.1. PASIBOEN SISTEMEI (PENTSIOAK) BURUZKO ALDERDI OROKORRAK FORU KOMUNITATEAN

Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidea Nafarroaren eskumen osoa da. Hartara, honako hau ezartzen du Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49.1 artikulua:

"... Nafarroari dagokio ondoko gai hauen gaineko eskumen osoa: b) Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidea, Estatuko oinarrizko legeriak funtzionario publikoei onartzen dizkien funtsezko eskubide eta betebeharrak errespetatuz."

Estatutu eta eskumen-araubide horretan, eskubide pasiboen sistema funtsezko zatia da, funtzionario publikoak erretiro egoerara eta egoera horretatik ondorioztatzen diren diru prestazioak eskuratzeko eskubidea izatera iristeko baldintzak ezartzen baititu. Hori dela eta, Nafarroako Diputazio edo Nafarroako Gobernuak, joan den mendeko 30eko hamarkadatik, bere langileen eskubide pasiboen sistema arautu du.

Gaur egun, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubidea nagusiki egoera hauetan jasota dago:

a) Montepioei atxikitako funtzionarioak: Foru Komunitateko administrazioetan 1992ko urtarrilaren 1a arte sartutako funtzionarioak, Nafarroako Gobernuaren kasuan, eta 1994ko urtarrilaren 1a arte, Nafarroako toki entitateen kasuan. Data horietan itxi zen funtzionario berriak foru montepioetan sartzeko bidea.

b) Gizarte Segurantzaren afiliaturiko funtzionarioak. 1992ko urtarrilaren 1etik eta 1994ko urtarrilaren 1etik Nafarroako Gobernuan eta Nafarroako toki entitateetan, hurrenez hurren, sartutako funtzionario berriak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrari atxikiko zaizkio.

c) Estatuko administrazio orokorretik transferitutako funtzionarioak, gizarte segurantzaren araubide orokorrari edo estatuko klase pasiboen bereziari atxikirik segitzen dutenak.

Foru montepioen barruan, araubide pasiboen aniztasuna dago gainera, funtzionarioen taldearen arabera. Izan ere, batera hauexek aurkitzen ditugu:

- Foru Komunitateko administrazioaren montepioa.
- Udal Montepio Orokorra
- Iruñeko Udaleko montepioa.
- Tuterako Udaleko montepioa.
- Tafallako Udaleko montepioa.

II.2. UDAL MONTEPIOAREN ARAU-ESPARRUA

Foru Diputazioaren 1931ko martxoaren 10eko erabakiaz, Foru Diputazioko Funtzionarioen Erretiroen eta Pentsioen Erregelamendua onetsi zen.

Foru Kontseilu Administratiboaren 1947ko maiatzaren 31ko erabakiaz, Nafarroako Udaletako Funtzionarioen Eskubide Pasiboen Erregelamendua onetsi zen.

1. artikulua honako hau ezartzen du:

"Nafarroako Foru Kontseilu Administratiboaren erabakiaz 1946ko abuztuaren 9an sortutako Montepioak aurrerantzean "Udal Funtzionarioen Eskubide Pasiboen Erregelamendua" izanen du arau". Organismo horrek ahalmen juridiko osoa izanen du bere xedeak betetzeko, eta pentsioak eman eta kasuko kuotak kobratzeko kudeatzaile bakartzat joko da".

Eta 2. artikuluan, honako hau dio:

"Helburu izanen du erretiro, baliaezintasun, alarguntasun eta zurtasun pentsioak ematea 1946ko urtarrilaren 1ean kasuan kasuko kargua jabetzan betetzen ari ziren Nafarroako udaletako

udal idazkariei, idazkaritzako administrari laguntzaileei, sendagileei, farmazialariei, albaitariei eta praktikante titularrei eta haien kausadunei”.

Foru Kontseilu Administratiboaren 1949ko abenduaren 12ko erabakiaz —xedapen gehigarri bakar gisa gehitu zen—, honako hau ezarri zen:

“1949ko uztailaren 1ean kargua jabetzean betetzen ari diren udaletako mendeko langileak, nomina eta plantillako udal izendapena dutenak, nahitaez sartuko dira erregelamendu honen onuretan, honako arau hauei jarraituz: Langile horien artean sartzen dira albienteak, udaletako guardak eta landako guardak, gauzainak eta gainerako udal langileak, modu jarraitu eta ohikoan gisa bereko eginkizunak betetzen egon eta Udal Administrazioaren Erregelamenduaren 260. artikulua eta xedapen osagarrien formalitateen bitartez lanpostu-hornitzea dela eta nagusi dituzten organismoek halakotzat jotzen dituztenak, eta aurrerantzean izaera berarekin eta baldintza berdinekin izendatuko dira, eta afiliazioa eskatu beharko dute 1947ko maiatzaren 31ko Erregelamenduko 5. artikuluari jarraituz...”

14. artikuluan honako hau esaten da:

“erretiroen eta pentsioen ordainketa, edozein dela ere hura sortzen duena, Montepioaren funtsekin eginen da guztiz...”

Eta 16. artikuluan, Montepioaren finantzaketa ezartzen da:

“Montepioaren funtsak bazkideen eta udalen kuotek osatuko dituzte, aurreko ekitaldian erreti-roengatik eta pentsioengatik montepioak ordaindu duen zenbateko osoa itzuli arte.

Bazkideen kuotak erregelamendu probintzietako eskala orokorretan finkatutako soldaten eta sortzapenaren azken ekitaldian zehar Diputazioetik jasotako bosturtekoen 100eko 5eko atxikipen bat izanen da; eta Udalek edo udal-taldeek ordainduko dituzte hiruhileko bakoitzaren muga-egunean, nahitaezkoak diren gainerako ordainketekin batera, funtzionarioei aurrez atxikipena eginda, edo, bestela, interesdunek Lurraldeko Diruzaintzan epe berdinetan zuzenean ordainduta; eta ulertuko da ondoz ondoko hiru kuota ez ordaintzea nahikoa arrazoi izanen dela Erregelamenduko 13. artikulua araberan onuretatik baztertuta gelditzeko, ordaindutako kuotak itzultzeko eskubiderik gabe.

Montepioaren diru-sarreraren eta gastuen artean dagoen defizita estaltzeko, banaketa pasibo bat eginen da Nafarroako udalen artean, Nafarroako Udal Administrazioarako Erregelamenduak esleitutako soldaten proportzioan, biztanle-zentsuaren araberan eta prozedura arrunta erabiliz.”

Banaketarako jatorrizko metodoa Foru Kontseilu Administratiboaren 1971ko abenduaren 29ko Erabakiaz aldatu zen, eta honela gelditu zen idatzita:

“Montepioaren diru-sarreraren eta gastuen arteko defizita berdintze aldera, banaketa pasibo bat eginen da Nafarroako udalen artean, ondoko arauei jarraikiz:

a) Idazkariei eta fakultatiboei (sendagileak, praktikanteak, albaitariak eta farmazialariak) dagokien defizita udalei igorriko zaie 1970eko abenduaren 31n indarrean zen erroldan edo haren gainean egindako zuzenketetan agertzen diren biztanleen proportzioaren araberan.

b) Gordailuzain funtzionarioei, nomina eta plantillako emaginei eta gainontzeko administrazio funtzionarioei eta menpekoei dagokien defizita udalei igorriko zaie duten langile kopuruaren araberan. Banaketa pasibo horretatik salbuetsita egonen dira udalak baldin eta beren barne araubideko erregelamenduan esleiturik badituzte funtzionarioen eskubide pasiboak eta, horrenbestez, montepiokoak ez badira”.

Defizitaren banaketatik kanpo geratzen dira Iruñeko, Tuterako eta Tafallako udalak, beren montepioa bai baitute. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago salbuespen hori ez dela erabatekoa hiru kasuetan, zeren eta Tuterako osasun arloko funtzionarioak Montepio Orokorrean baitaude eta Tafallak bere idazkaria eta osasun arloko funtzionarioak Montepio Orokorrean baitauka.

Foru Diputazioaren 1980ko otsailaren 21eko Erabakiak ordainsarien sistema berri bat ezarri zuen, eskubide pasiboetan eragina izanen zuena. Arau horrek, eskubide pasiboen kalkuluaren

eraginetarako, bi talde sortzea ekarri zuen, bata 1973ko uztailaren 14a baino lehen sartu ziren funtzionarioek osatua, eta bestea ondoren sartutakoek osatua.

Martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legeak, zeinak arautzen baitu Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua, finkatu zuen zer lansari-sistema eta zer maila-sistema aplikatuko zitzaizkien —eta gaur ere hala da— Foru Komunitateko administrazio publikoetako zerbitzu aktiboko funtzionarioei. Hirugarren xedapen iragankorrean zehaztu zen ezen, Foru Legearen garabidean onetsi behar zen Eskubide Pasiboen Erregelamenduak indarra hartzen ez zuen artean, erretiroek delako araua onetsi zenean indardun ziren xedapenak izanen zituztela jarraibide.

Abenduaren 30eko 13/1993 Foru Legeak (1994ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa) ezarri zuen Foru Komunitateko toki administrazioetan sartzeko funtzionario berriei Gizarte Segurantzako araubide orokorrean emanen zitzaiela alta eta, hala bazegokion, bertan afiliatuko zirela.

Xedapen horrekin itxi zen Foru Komunitateko toki administrazioetako funtzionarioak Montepioan sartzeko, halako modu non hari atxikitako funtzionarioek “desagertu” beharreko taldea osatu baitzuten.

Ez zen iritsi 13/1983 Foru Legea garatzeko pasiboen erregelamendua egitera eta onestera. Horren ordez, aukeratu zen martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea onestea, Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa, zeinak, behin-behineko, Montepioetako funtzionarioentzako prestazio pasiboen sistema berria arautu baitzuen.

Legegilearen asmoa zen funtzionarioen kolektibo hori Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzeko; alabaina, behin-behineko araubide horrek indarrean jarraitzen du gaur egun.

Martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean ezarri zen eskubide pasiboen sistemak (araubide horri atxiki zaion eta “desagertu” beharreko langile talde horri soilik aplikatzeko) Gizarte Segurantzaren antzeko sistema bat ezartzen du, zeinean pentsioak kalkulatzeari begira aktiboan jasotzen ziren lansariak hartzen baitira aintzat, nahiz eta zenbait muga gehieneko egon, beste sistema horretan bezalaxe.

10/2003 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak ezartzen du Nafarroako administrazio publikoek euren kudeaketa arloan esleiturik dituzten Montepioekiko eginkizun eta zerbitzuak betetzen segituko dutela, eta ez dutela zilegi izanen foru lege honek indarra hartu baino lehen haietako bakoitzean indarrean zen eskubide pasiboen erregulazio araudia aldatzea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak honako hau ezarri zuen: “Nafarroako Gobernuak lagun egingo dio Udal Bahituretxeak finantzatzeari Nafarroako Aurrekontu Orokorretan hartarako dauden partiden bitartez”.

10/2003 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarriak, “udal Montepioen finantzaketa” dela eta, honako hau ezartzen du:

“1. Nafarroako toki entitateek Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioko klase pasiboen urteroko kostu garbi osotarako finantzatzeko dute, ehuneko 64,3 hain zuzen. Osotarako diru kopurua ez da inola ere 10.682.014 eurotik gorakoa izanen. 2002. urtetik aurrera, urte hori barne, diru-muga horri kasuko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru legeak pentsioetarako finkatzen duen igoera aplikatuko zaio.

2. Iruña, Tafalla eta Tuterako udalek euren Montepioko klase pasiboen urteroko kostu garbia finantzatzeko dute, ehuneko 77,1ean. Osotarako diru kopurua ez da inola ere 9.312.961 eurotik, 454.520 eurotik eta 1.082.046 eurotik gorakoa izanen, hurrenez hurren. 2002. urtetik aurrera, urte hori barne, diru-muga horiei kasuko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru legeak pentsioetarako finkatzen duen igoera aplikatuko zaie.

3. Aurreko kostu garbi osotarako finantzatzeko behar diren kopuru osagarriak Nafarroako aurrekontu orokorretatik hartuko dira...”

Urte bakoitzeko aurrekontuei buruzko legeek agindu horiek bete ahal izateko aurrekontu-partidak jasotzen dituzte.

Urte bakoitzean, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen batez, udal montepioak sortutako defizita onesten da, bai eta hura Nafarroako toki entitateen artean nola banatuko den ere.

Horretatik ateratzen diren zenbatekoak hiru hilez behin kargatzen zaizkie toki entitateei Banaketa Kontuaren bitartez. Hiru hilez behin, halaber, kontu horretan bertan ehuneko 35,7a ordaintzen zaie, eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura finantzatzen da.

II.3. UDAL MONTEPIOAREN BANAKETAREN APLIKAZIO PRAKTIKOA

Praktikan, aipatutako araudia eta irizpideak honelako prozedura honen arabera laburbil daitezke:

1. Erretiro egoerara pasatzen diren udal funtzionarioen edo haien onuradunen nominak udal montepioko kudeatzaileek egiten dituzte, hau da, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Gizarte Prestazioen Zerbitzuak.
2. Funtzionarioen kuotak kasuan kasuko udalek biltzen dituzte. Horiek kotizazio oinarriak Montepioari komunikatuko dizkiote, eta horrek, behar diren kalkuluak egin ondoren, kuotak udalei kargatuko dizkie Banaketa Kontuan.
3. "X" ekitaldiko defizita, "X+1" ekitaldirako, honela kalkulatzen da: "X" urteko pentsioen eta "X-1" kuoten arteko aldea.
4. Kontabilitatearen ikuspuntutik, Nafarroako aurrekontuek pentsioen ordainketa aktibo finantzarioen kapituluan jasotzen dute, zeren eta aurrerakin bat baita.
5. Udal montepioaren urteko defizita honako hauen pentsioei dagozkien zazpi defizit partzialen batura da:
 - Idazkariak.
 - Sendagileak.
 - Praktikanteak.
 - Albaitariak.
 - Farmazialariak.
 - Administrariak.
 - Menpeko langileak.

Talde horietako bakoitzari ordaindutako pentsioetatik kentzen dira kolektibo horri dagozkion kuotak. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako banaketan, bost talde aurkezten dira, zeren eta, alde batetik, sendagileak eta praktikanteak baitaude, eta, bestetik, albaitariak eta farmazialariak.

6. Idazkariak eta sanitarioen defizita populazioaren arabera banatzen dira udalen artean; administrarien eta menpeko langileen defizita, berriz, montepioari atxikitako aktiboen arabera. Banaketa honako zazpi azpitalde hauetako bakoitzaren arabera egiten da: Hartara, esate baterako, Montepioari atxikita soilik menpeko langileak dauzkan udal batek ez du inongo ekarpenik egiten administrarien defiziterako.
7. Pasiboak badauzkaten arren, honako hauek ere ez dute parte hartuko defizitaren banaketan: Zaraitzuko Ibarra, Sakanako Mankomunitatea eta Nafarroako Errege Bardeako Komunitatea.
8. Idazkarien eta osasun arloko langileen defizita banatzeko, banaketa populazioaren arabera egiten baita, honako hauek ez dira kontuan hartuko:
 - Gazteluberri.

- Tuterako, idazkarien taldeari dagokionez, ez baitu idazkaririk montepioan.
 - Petilla Aragoi, sendagileen eta farmazialarien taldeari dagokionez.
 - Lapoblación, sendagileen taldeari dagokionez.
 - Iruña, zeren eta bere funtzionario guztiak bere montepioan baitauzka.
9. Administrariaren eta menpeko langileen banaketarako —aktiboen arabera egiten da—, kontuan hartzen dira aktibo horiek urtean zenbat hilabetez lan egin duten, bai menpeko langileen taldean, bai administrariaren taldean ere.
10. Defizitaren udalen arteko banaketa onetsita, haren zenbatekoa hiru hilez behin kargatzen da Banaketa Kontuan. Halaber, hiru hilez behin Banaketa Kontuan ordaintzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorren bidez diruz lagundutako defizitaren atalari dagokion zenbatekoa, 10/2003 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera; izan ere, honako hau ezartzen du:
- “Nafarroako toki entitateek Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioko klase pasiboen urteroko kostu garbi osotarako finantzatuko dute, ehuneko 64,3 hain zuzen. Osotarako diru kopurua ez da inola ere 10.682.014 eurotik gorakoa izanen.”*
11. Nafarroako Gobernuak defizitaren zati bat ordaintzen du, bai eta Iruñeko, Tuterako eta Tafallako udalek ere, arestian aipatutako 10/2003 Foru Legean aipatu bezala.

III. ONDORIO OROKORRA

Egindako lanetik, honako ondorio orokor hauek ateratzen ditugu, zeinak hurren atalean zehazten edo zabaltzen baitira.

Udal Montepioa, 1946an ezarria, banaketa-eredu baten gisara eratu zen, ez kapitalizazio eredu baten gisara, eta udalen artean solidarioa zen. Hartara, udal bakoitzak pentsiodun guztiek sortzen duten gastutik dagokion zatia finantzatzen du.

1971n, defizita udalen artean banatzeko aurreko metodoa aldatu zen, eta ezarri zen haren zati bat biztanle kopuruaren arabera banatuko zela eta beste bat, berriz, Montepioari atxikitako aktiboaren arabera.

1994tik funtzionario berriak Gizarte Segurantzaren araubidean sartzen dira; hori dela eta, araubidea, langile berririk sartzen ez denez, "desagertzeko" egoeran geratzen da.

Aldi horretan langileen arloan egindako aldaketa desberdinek, nagusiki lansarien eta pasiboen sisteman egindakoek, ez dute aldaketarik ekarri defizita banatzeko sisteman; hori dela eta, egungo inguruabarretan, ilogikotzat jo ditzakegun egoerak sortzen dira, etorkizunean guztiz jasanekin izanen direnak, zeren eta une batera iritsita ez baita langile aktiborik izanen, eta ezin izanen baita defizita halakoen artean banatu.

Horri dagokionez, esan beharra daukagu defizitaren batez bestekoa, azken urteetan, 18 milioi eurokoa izan dela, eta 2015ean, menpeko langile bakoitzeko banaketan, 72.000 euro egokitu direla.

Horretatik heldu dira Udal Montepio Orokorraren defizitaren banaketarako egungo sistema aldatzeko premia eta urgentzia; izan ere, 1994an ekin behar zitzaion gai bat da hori, Montepioara aktiboak sartzeari utzi zitzaion unean.

Egungo sistemak entitate bati "on" ala "kalte" egiten dion segurtatu ahal izateko, Montepioak historian zehar izan dituen emaitzak baloratu behar dira; izan ere, hori egin ezean, analisi partzialak egiten ariko gara.

Defizitaren banaketan gertatuko liratekeen emaitzen zenbait zenbatespen egin ditugu, aldagai desberdinak aintzat hartuta. Hurrengo atalean azalduko ditugu.

Egungo testuinguruan, ezin izan dugu zehaztu ea defizita banatzeko sistemak on egin ahal ote dizkien ukitutako entitateei, zeren eta entitate kopuru finko batean egindako banaketa bat denez, batek "onurarik hartzen badu" bestea "kalteturik aterako baita".

Ezin dugu horietatik bakarraren alde egin, zeren eta guztiak "alde onak" eta "alde txarrak" baitaizkate; hori dela eta, haiek aurkezten ditugu, Montepioaren egoerari buruzko ikuspegi zabalago bat eskaini ahal izateko.

Oro har, adierazi beharra daukagu ezen, defizitaren zati bat dauden langileen arabera banatzeari uzten bazaio, aktiboak dauzkaten udalek "onuradun" aterako direla, eta zenbateko hori gainerakoaren artean banatzean, horiek "kaltetun" atera daitezkeela.

Horrenbestez, banaketa-sistemaren aldaketa urgente bat eskatzen duen Montepio baten aurrean gaude, eta konponbide guztiz onik ez dago.

Gure iritziz, honako hauek dira konponbide orekatuagoa lortzeko aintzat hartu behar diren alderdiak:

a) Zein entitatek parte hartu behar duten defizitaren banaketan, zeren eta gaur egun udal batzuek ez baitute parte hartzen; halaber, elkartegintzako entitateen bat badago pasiboak izan baina defiziterako ekarpenik egiten ez duena.

b) Ea konponbideak Montepio Orokorra edo gainerako hiru udal montepioak ere hartu behar dituen, zeren eta gaur egun proportzio desberdinean ematen baitzaizkie diru-laguntzak.

c) Teknikoki, defizita banatzeko irizpide errazena biztanleriarena da.

d) Banaketarako irizpide gisa aktiboen kopuruaren banaketa kentzen bada, logikoa dirudi Montepioari atxikitako langileentzat Montepiorako enpresa-ekarpen bat ezartzea, Gizarte Segurantzari egiten zaionaren parekoa.

e) Konponbide errazena da Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, Toki Ogasunen Funtsaren kargura, gaur egun hartzen dutena baino defizitaren portzentaje handiagoa hartzea edo, are gehiago, defizit osoa hartzea.

Aukera hori Nafarroako Toki Ogasunaren Erreformari buruzko proiektuan jasota dago, nahiz eta oraindik ere ez den zehaztu. Proiektua onetsi gabe eta Toki Ogasunen Funtsaren osaera ezagutu gabe, ezin da proposamen hori baloratu.

Agerikoa da ezen, egungo egoeran, funtsak Montepioaren defizita bere gain hartuz gero haren zenbatekoa handitu gabe, biztanleriaren arabera banaketa bat egiten ariko ginela, eta horixe da faktore adierazgarriena gaur egun Toki Ogasunen Funtza banatzeko garaian.

f) Defizitaren banaketarako irizpideak hautatzerakoan, kontuan hartu behar dira, halaber, haren aplikaziorako aldagai batzuek izan ditzaketen zailtasunak (aurrekontuak, langile aktiboen guztizkoa...).

IV. ONDORIOAK

Egindako lanaren ondorio nagusiak emanen ditugu jarraian. Aurreko ataleko ondorio nagusia zabaltzen edo zehazten dute:

IV.1. ALDERDI OROKORRAK

Lehena. Laburpen orokorrean aipatutako inguruabarrek distortsioak eragiten dituzte udalen arteko banaketan. Hala eta guztiz ere, Montepioaren historia osoa aztertu beharko litzateke distortsio horiek udal bakoitzean izan duten eragina zehatz baloratzeko; ezin dugu ahaztu Montepioa udalen arteko elkartasunean oinarrituta dagoela. Halaber, nabarmendu beharra daukagu ezen distortsio aipagarriena gertatzen dela 1994. urtetik aktibo berriak sartzen ez direlako; izan ere, beranduenez, une hartantxe aldatu behar zen defizita banatzeko sistema.

Bigarrena. Egoera hori jada ezagutzen zen, zeren eta zenbait txostenetan, kanpokoetan zein barrukoetan, agerian jarria baitzegoen. Hartara, Kontuen Ganberaren 2001ko txostenean, arestian aipatu den horretan, honako hau adierazi zen: *“Ondorioz, amaierako laburpen gisa, hona ganbera honek adierazten duena: Foru Komunitateko enplegatutako publikoen pasiboen sistemaren gaurkotzea presako beharrez bat da, ezin luza daitekeena, foru legeetan jada aurreikusita dagoena eta gutxienez ere 1983tik hona eskatzen ari izan dena. Aukera emanen du Nafarroako administrazio publikoen langileak zuzen kudeatzeko, egoera desegoki bati konponbidea emanda”*.

Eta Toki Sektore Publikoari buruzko 2003ko ekitaldiko txostenean, honako hau ondorioztatu zen: *“Laburbilduz, hain emaitza anitzak atera dira, batez ere, ez zaiolako funtzionario gehiago atxiki sistemari, eta urte askoan indarrean iraun badezake ere, sistema hori iraungi egingen da. Hortaz, esan daiteke aldatu egin direla sistemaren oinarritzako funtzionamendu-baldintzak, Montepioari atxikitako langileak eta gizarte segurantzari atxikitakoak daudelako aldi berean. Kontuan hartzekoa da orobat osasun arloko udal funtzionarioak Nafarroako Gobernuako funtzionario izatera igaro izana”*.

Zentzu berean, egiaztatu dugu Nafarroako Gobernuaren barne txosten batzuk badaudela — azkenak Gizarte Prestazioen Zerbitzuaren 2014ko eta 2016ko txostenak — zeinetan aipatzen baita Montepioaren egoera zuzentzeko urgentzia eta zailtasuna dagoela, aktibo berririk ez sartzearen ondorioz eta defizita udalen artean banatzeko moduen ondorioz. Halaber, udal funtzionarioen Montepio desberdinen finantzaketan gertatzen diren aldeak aipatzen dira.

IV.2. DATU OROKORREI DAGOKIENEZ

Hurrengo ondorioetan sartzen diren zenbatekoak Montepioak sortzen duen defizitari dagozkie, eta kontuan hartu beharra dago ezen, Nafarroako Aurrekontuen kargura, ehuneko 35,7ko diru-laguntza ematen dela, halako moduz non toki entitateek finantzatu beharreko gehieneko zenbatekoak ez duen gaitutako 10.682.014 euroko zenbatekoa; zenbateko hori kasuan kasuko ekitaldirako gaurkotuko da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko ondoko foru legeetan pentsioetarako finkatzen diren igoerekin, 2002tik aurrera, urte hori barne.

Hirugarrena. Hurrengo taulan, 2006tik 2016ra bitarteko urteetarako, Montepioaren defizitaren zenbatekoa aipatzen da, bai eta urte bakoitzeko pasiboen eta aktiboen kopurua ere:

Urtea	Biztanleriaren gaineko banaketa (Idazk+Send+Farm)	Aktiboen kopuruaren gaineko banaketa (Adm+menpeko lang)	Montepio Orokorren defizita	Pasiboak*	Aktiboak	Defizita Pasiboa
2006	8.597.791	8.662.298	17.260.090	1.127	385	15.315
2007	8.444.243	8.914.039	17.358.281	1.101	362	15.766
2008	8.676.868	9.676.474	18.353.342	1.077	329	17.041
2009	8.354.747	9.661.636	18.016.383	1.037	311	17.374
2010	8.145.295	9.650.194	17.795.489	1.008	293	17.654
2011	8.348.947	10.004.412	18.353.359	979	258	18.747
2012	7.998.891	9.881.183	17.880.073	956	256	18.703
2013	8.124.275	9.940.220	18.064.495	933	237	19.362
2014	8.022.822	10.046.882	18.069.704	927	214	19.493
2015	7.873.552	10.233.611	18.107.163	899	192	20.141
2016	7.601.186	10.252.612	17.853.798	873	161	20.451

* Erretiroko, alarguntasuneko eta zurtasuneko pentsioak jasotzen dituztenak biltzen ditu

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, zenbatekoari ia beti eusten zaio 18 milioi euroko kopuruan; pasiboen kopurua, berriz, ehuneko 23 jaisten da, 1.127 izatetik 873 izatera pasa baitira; aktiboak, berriz, ehuneko 58 jaitsi dira, 385 izatetik 161 izatera pasa baitira, eta pasiboen araberako defizita ehuneko 34 handitu da, 15.315 eurokoa izatetik 20.451 eurokoa izatera pasa baita.

Iruñeko, Tafallako eta Tuterako montepioak ere kontuan hartzen baditugu, urteko defizita 40 milioi eurokoa baino handiagoa da.

2016an, Udal Montepio Orokorren defizit orokorra honako defizit partzialek osatzen dute:

Kontzeptua	Pentsioen zenbatekoa	Aktiboen ekarpena	Defizita
Idazkariak	4.789.470	78.158	4.711.312
Farmazialariak	709.879	0	709.879
Albaitariak	611.730	0	611.730
Sendagileak	1.115.482	0	1.115.482
Praktikanteak	452.782	0	452.782
Administrariak	2.655.799	70.093	2.585.706
Menpeko langileak	7.848.788	181.882	7.666.906
Guztira	18.183.931	330.133	17.853.798

Laugarrena. Honako hau da 2015eko 899 pasiboen banaketa:

	Entitate kopurua	Pentsiodunen kopurua	Pentsiodunak/guztizkoa (%)
Pentsiodunik gabe	88	0	
Pentsiodun batekin	58	58	6
1 ≤ 5 baino gehiago	71	221	25
5 ≤ 10 baino gehiago	35	260	29
10 ≤ 20 baino gehiago	19	266	30
>20	2	94	10
Guztira	273*	899	100

*273ak 272 udali dagozkie, Iruñekoa eta Gazteluberrikoak kenduta, gehi defizita banatzen ez zaien entitateak, arestian aipatu direnak: Sakanako Mankomunitatea, Zaraitzu Ibarra eta Errege Bardeako Komunitatea.

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, pentsiodunen udalen arteko banaketa oso irregularrak da: pentsiodunik ez duten 88 udal badaude; bi udalek, berriz, pentsiodun guztien ehuneko hamar dituzte.

Bosgarrena. 2006tik 2015era 179.258.379 eurokoak izan dira Udal Montepioaren defizitaren-gatik karguak, 18 milioi euroko batez besteko zenbatekoarekin.

- 88 udal badaude azken hamar urteetan pasiborik izan ez duenak eta defizitaren ehuneko lau ordaindu dutenak.

- 80 udal badaude azken hamar urteetan ez aktiborik ez pasiborik izan ez duenak eta defizitaren ehuneko bi ordaindu dutenak.

Azken hamar urteetan gehien ordaindu duten 20 udalek defizitaren ehuneko 55 ordaindu dute; hona xehetasunak:

2006-2015 aldian gehien ordaindu duten 20 udalak	2006-2015 aldiko kargua, guztira	2006-2015 aldian karguak izan duen igoera (balio absolutua)	Karguaren handitzea 2006-2015 (%)	Biztanleriaren BIZTANLEAK 2006-2015 (%)	Pasiboen handitzea 2006-2015 (%)	Aktiboen handitzea 2006-2015 (%)
Burlata	12.590.797	-153.491	-12	0	29	-60
Barañain	10.405.208	78.337	8	-9	100	-35
Lizarra	9.785.419	195.101	22	-1	-17	-38
Atarrabia	7.573.588	176.034	26	0	20	-38
Corella	6.330.016	365.023	78	0	-44	0
Baztan	5.020.650	54.489	12	0	-20	-50
Altsasu	4.970.096	-36.967	-7	0	-10	-58
Cortes	4.416.753	210.713	65	-5	-29	-36
Antsoain	4.384.154	100.779	26	9	100	-17
San Adrián	3.880.802	138.736	46	4	-8	-14
Cintruénigo	3.691.380	66.414	19	15	-23	-50
Eguesibar	3.515.496	276.660	148	264	-20	-50
Azkoien	3.125.280	-3.401	-1	1	-25	-50
Zangoza	3.092.204	84.511	30	-1	-24	-20
Tutera	3.063.950	-105.872	-30	8	-20	-
Berriozar	2.860.029	42.426	15	13	-17	-25
Murchante	2.737.816	76.315	36	14	-20	-50
Zizur Nagusia	2.732.782	-21.405	-7	10	-	-
Uharte	2.560.313	-2.042	-1	45	43	-50
Ribaforada	2.531.386	112.298	53	6	0	-43
Honaino, guztira	99.268.120	1.654.658	18	11	-10	-40
Orokorra, guztira	179.258.379					

Hau da, defizitaren ehuneko 55 finantzatu duten hogeit hamar udal horiek 2006-2015 aldian beren ekarpena 1,65 milioitan handitu dute: ehuneko 18 hain zuzen. Epe berean, haien biztanleriak ehuneko 11 egin zuen gora, pasiboen kopuruak ehuneko 10 egin zuen behera eta Montepioko afiliatu aktiboek ere ehuneko 40 egin zuten behera.

Seigarrena. Honako hau izan zen 2015eko 899 pentsioen banaketa, pentsio motaren arabera:

Pentsio mota	Pentsiodunen kopurua
Borondatezko erretiroa	254
Nahitaezko erretiroa	67
Ezintasuna, guztira	44
Alarguntasuna	305
Zurztasuna	169
Baliaezintasun absolutua	57
Egonkortuak*	1
Baliaezintasun handia	2
Guztira	899

* Egonkortutako pentsioak ez dira gaurkotzen onuradunak 65 urte betetzen dituen arte.

Zazpigarrena. Erreferentzia gisa hartuta Gizarte Segurantzaren gehieneko pentsioa, zeina, gutxi gorabehera, urtean 35.000 eurokoa baita, eta Montepioa sistema orokorrarekin asimilatu dela, kalkulatu dugu, batetik, zenbat udaletan 2015ean pasibo bakoitzarengatik karguak zenbateko hori gainditzen duen; bestetik, zenbat udaletan gainditzen den zenbateko hori 2006-2015 aldiko batez bestekoa. Honako hau da emaitza:

Pasibo bakoitzarengatik 35.000 eurokoa baino handiagoa duten entitateak, 2006-2015 aldiko hamar urteetako batez bestekoa, eta 2015eko kostuarekiko alderaketa

Entitatea	2006-2015 ALDIA			2015. URTEA			
	Σ 2006-2015 aldiko defizita (a)	Pasiboaren kopurua urteko batez bestekoa 2006-2015 (b)	Defizita / pasiboak (1) (c)	2015eko kargua, guztira (d)	Pentsiodunen Kopurua (e)	Kargua/pentsiodunen kopurua (f)	Aldea f/c
Antsoain	4.384.154	3	137.005	489.637	4	122.409	- % 11
Aiegi ⁽²⁾	708.329	1	70.833	41.312	2	20.656	- % 71
Aranguren	1.807.536	5	33.473	175.123	5	35.025	% 5
Barañain	10.405.208	4	236.482	1.043.813	6	173.969	- % 26
Berbintzana	645.188	0	64.519	83.753		83.753	% 30
Beriain	726.725	0	72.672	72.468		72.468	% 0
Berriobeiti	1.480.312	2	74.016	193.582	2	96.791	% 31
Berriozar	2.860.029	6	49.311	323.268	5	64.654	% 31
Oltza Zendea	838.934	3	29.962	105.909	3	35.303	% 18
Corella	6.330.016	21	30.000	833.164	15	55.544	% 85
Cortes	4.416.753	11	39.791	532.543	10	53.254	% 34
Irurtzun	446.661	1	44.666	40.883	1	40.883	- % 8
Lekunberri	624.195	0	62.419	84.272		84.272	% 35
Murchante	2.737.816	9	30.420	287.465	8	35.933	% 18
Murillo el Fruto	1.153.624	2	52.437	155.729	1	155.729	% 197
Noain (Elortzibarra)	1.841.164	2	87.674	177.043	2	88.521	% 1
Orkoien	1.107.062	0	110.706	88.240	1	88.240	- % 20
Ribaforada	2.531.386	6	42.190	325.988	6	54.331	% 29
Erronkari	558.337	2	29.386	76.187	1	76.187	% 159
San Adrián	3.880.802	12	31.810	439.382	12	36.615	% 15
Santakara	1.045.738	4	27.519	145.198	3	48.399	% 76
Tutera	3.063.950	4	69.635	248.840	4	62.210	- % 11
Eguesibar	3.515.496	5	78.122	463.898	4	115.974	% 48
Atarrabia	7.573.588	12	65.857	864.895	12	72.075	% 9
Zizur Nagusia	2.732.782	0	273.278	270.064		270.064	- % 1

(1) Pasiborik ez badago edo pasibo bat baino gutxiago badago, defizitaren urteko batez bestekoa jarri dugu

(2) Letra etzanez jarri ditugu pasibo bakoitzaren kargua 35.000 eurokoa baino txikiagoa duten entitateak, dela batez bestekoa, dela 2015. urtean.

Ikus daitekeen bezala, 2015ean, hogeitau entitate badaude pentsiodun bakoitzeko 35.000 euroko kopurua gainditzen dutenak; gainera, beste lautan kopuru hori gainditzen dute 2015ean pentsiodunik eduki gabe. Zenbateko handienak Zizur Nagusian (270.064 euro pentsiodunik izan gabe), eta Barañainen eta Murillo el Fruton daude (173.969 eta 155.729 euro hurrenez hurren).

Zazpi udaletan, 2015eko zenbatekoak 35.000 euroko kopurua gainditzen du, baina ez aldiko batez bestekoan; kasu batean, aldiko batez bestekoan gainditzen du, eta ez 2015. urtean.

2015ean, aldiko batez bestekoaren gainean izan diren igoera-portzentajeak ehuneko 48 eta ehuneko 197 bitartekoak izan dira, eta bost udaletan gertatu dira.

IV.3. AKTIBOEN DEFIZITAREN BANAKETAN DUTEN ERAGINA.

Zortzigarrena. "Menpeko langileak eta administrariak" taldeko pentsioen gastua udalen artean banatzen da udal bakoitzak kategoria horietan dauzkan aktiboen kopuruaren arabera.

Bi talde horietako bakoitzerako defizita honako hau izan zen:

Defizita	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Administrariak	1.817.989	1.836.731	2.045.127	2.103.059	2.211.406	2.397.712	2.348.727	2.369.916	2.420.874	2.558.147
Menpeko langileak	6.844.309	7.077.308	7.631.346	7.558.577	7.438.788	7.606.700	7.532.456	7.570.304	7.626.009	7.675.464
Administrari eta menpeko langileengatikoko defizitaren orain artekoa, guztira	8.662.298	8.914.039	9.676.474	9.661.636	9.650.194	10.004.412	9.881.183	9.940.220	10.046.882	10.233.611

Hau da, Montepioaren defizitaren 18,1 milioi horietatik administrarien taldeak ehuneko 14 hartzen du, eta menpeko langileenak, berriz, ehuneko 42 egiten du.

Bi kategoria horietako aktiboen kopurua erdira jaitsi zen 2006tik 2015era:

	Aktiboen kopurua, kategoriaren arabera									
	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Administrariak	90	85	77	72	67	63	61	57	51	45
Menpeko langileak	212	193	177	168	159	148	137	126	117	106

* Banaketa aktiboen eta hilabeteen arabera egiten da; hori dela eta, urteko zenbatekoa kalkulatu dugu

Kategoria horietan langileak dituzten udalak, zeinen artean banatu behar baita defizita:

	Udal kopurua										
	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	
Administrariak	52	50	49	48	46	43	41	40	38	32	
Menpeko langileak	68	65	60	59	57	54	52	50	45	42	
Bi kategoria horietako batean aktiboak dauzkaten udalen kopurua	75	75	72	71	69	68	66	63	59	53	

Udalen guztizko kopurua txikiagoa da batura baino, zeren eta langileak bi kategorietan dauzkaten udalak bai baitaude Azken batez, 22 udal gutxiago daude defizita banatzeko; izan ere, 2006an 75 izatetik 2015ean 53 izatera pasatu dira.

Laburbilduz, bi talde horien pentsioek ehuneko 18 egin dute gora; defizita banatzen zaien pertsonen kopuruak, berriz, ehuneko 50 egin du behera. Horrek berekin dakar aktibo bakoitzeko jasanaraztea nabarmen handitu dela, hurrengo ondorioan azaltzen den bezala.

Bederatzigarrena. Hurrengo taulan ikus daiteke Montepioaren defizitaren banaketaren aktibo bakoitzeko jasanaraztea:

Kategoria horietan aktibo bat eduki-tzearen kostua	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Administrariak	20.163	21.524	26.531	28.908	32.681	38.009	38.347	41.216	47.313	56.638
Menpeko langileak	32.183	36.528	43.034	44.969	46.785	51.397	54.848	59.687	65.180	71.957

Aktiboan dagoen administrari bakoitzeko Montepioak duen kostua 20.163 eurokoa izatetik 56.638 eurokoa izatera pasa da 2006-2015 aldian; menpeko langileena, berriz, 32.183 eurokoa izatetik 71.957 eurokoa izatera pasa da.

Une bat iritsiko da non ez den langilerik izanen aktiboan, talde horien pentsioek sortutako defizita banatzeko.

Hamargarrena. Kostuaren zenbatespen bat egin dugu, zeina egoki bailekioke menpeko langileen kategorian dagoen funtzionario bati, lansari-maila desberdinen arabera, eta kontuan hartuz graduen gehieneko kopurura iritsi dela, 8 bosturtekorekin eta ehuneko 50era bitarteko osagarri pertsonalekin. 2015erako, honako hauek dira emaitzak:

	Maila		
	C	D	E
Hasierako edo oinarrizko soldata	17.643	15.366	13.516
Gehieneko gradua x 6	9.527	8.297	7.299
8 bosturteko	1.487	1.487	1.487
% 50eko osagarria	8.822	7.683	6.758
Guztira	37.479	32.833	29.060

Lansari gordinari Gizarte Segurantzaren patronalaren kuotaren ehuneko 30 gehituz gero, honako hau aterako zaigu:

lansari gordina + Δ % 30	48.723	42.683	37.778
--------------------------	--------	--------	--------

Horrek esan nahi du ezen Gizarte Segurantzaren afiliatuta dagoen menpeko langile batek, antzintasun handienarekin, mailaren arabera, 37.778 euro eta 48.723 euro bitarteko kostua duen bitartean, Montepioa bada 101.017 euro eta 109.436 euro bitarteko kostua izanen duela, Montepioaren kategoria horretako defizita banatzearen ondorioz.

IV.4. UDAL MONTEPIO GUZTIEN FINANTZAKETA

Hamaikagarrena. Lehenago aipatu dugun bezala, 10/2003 Foru Legeak montepioek —Udal Montepio Orokorra, Iruñekoa, Tafallakoa eta Tuterakoa— finantzatu beharreko defizitaren gehieneko zenbateko batzuk ezarri zituen; gainerakoa Nafarroako Aurrekontuen kargura finantzatu zen.

Honako hauek izan ziren 2015eko zenbatekoak:

	2015				
	Pasiboen kopurua	Defizita Montepioa	Pasibo bakoitzeko defizita montepio bakoitzean	Montepioaren kostu garbia (kasua bada, Udalak finantzatu beharreko gehieneko zenbatekoa)	Pasibo bakoitzeko kostua, montepio bakoitzean
Iruña	891	19.404.530	21.778	12.527.163	14.060
Tafalla	40	797.234	19.931	611.389	15.285
Tutera	80	1.712.440	21.405	1.320.292	16.504
Orokorra	899	18.107.163	20.141	11.642.906	12.951
Guztira	1.910	40.021.367	20.954	26.101.750	13.666

Ikus daitekeen bezala, 2015ean, montepio bakoitzarentzako pasibo bakoitzeko egiazko kostua batez bestekoaren azpitik dago Montepio Orokorrean eta batez bestekoaren gainetik, berriz, Iruñeko, Tafallako eta Tuterako montepioetan.

Hamabigarrena. Honako hau izan da Iruñeko, Tuterako eta Tafallako montepioen defiziten finantzaketa, bai eta Montepio Orokorrena ere, azken urte hauetan:

Udala	Kontzeptua	2013	2014	2015	2016
IRUÑA	Defizita	20.285.849	20.259.389	19.404.530	21.852.850
	% 77,10	15.640.389	15.619.989	14.960.893	16.848.547
	Udalaren gehieneko zenbatekoa	12.464.761	12.495.923	12.527.163	12.558.481
	Nafarroako Gobernuak finantzatzekoa	7.821.088	7.763.466	6.877.367	9.294.369
	Nafarroako Gobernuaren finantzaketa (%)	% 38,55	% 38,32	% 35,44	% 42,53
	Udalak finantzatua	% 61,45	% 61,68	% 64,56	% 57,47
	Defizita	835.693	798.082	797.234	727.022
% 77,10	644.319	615.321	614.667	560.534	
TAFALLA	Udalaren gehieneko zenbatekoa	608.344	609.865	611.389	612.918
	Nafarroako Gobernuak finantzatzekoa	227.349	188.217	185.844	166.488
	Nafarroako Gobernuaren finantzaketa (%)	% 27,20	% 23,58	% 23,31	% 22,90
	Udalak finantzatua	% 72,80	% 76,42	% 76,69	% 77,10
	Defizita	1.759.987	1.731.246	1.712.440	1.678.409
% 77,10	1.356.950	1.334.791	1.320.292	1.294.053	
TUTERA	Udalaren gehieneko zenbatekoa	1.448.245	1.451.865	1.455.495	1.459.134
	Nafarroako Gobernuak finantzatzekoa	403.037	396.455	392.149	384.356
	Nafarroako Gobernuaren finantzaketa (%)	% 22,90	% 22,90	% 22,90	% 22,90
	Udalak finantzatua	% 77,10	% 77,10	% 77,10	% 77,10
	Defizita	18.064.495	18.069.704	18.107.163	17.853.798
% 64,30	11.615.470	11.618.820	11.642.906	11.479.992	
OROKORRA	Udalaren gehieneko zenbatekoa	14.297.145	14.332.888	14.368.720	14.404.642
	Nafarroako Gobernuak finantzatzekoa	6.449.025	6.450.884	6.464.257	6.373.806
	Nafarroako Gobernuaren finantzaketa (%)	% 35,70	% 35,70	% 35,70	% 35,70
	Udalak finantzatua	% 64,30	% 64,30	% 64,30	% 64,30

Ikus daitekeen bezala, 2003ko legean ezarritako topeen ondorioz, Iruñea da bere montepioen defizitaren ehuneko txikiena finantzatzen duena; Tafallak, berriz, 2013tik 2016ra ehuneko hori zerbait handitu du, eta Tuterak, azkenik, ehuneko berdinei eusten die.

Adierazgarria da Tuterak eta Tafallak 2016an finantzatzen duten ehunekoaren —ehuneko 77,10— eta Iruñeak finantzatzen duen ehunekoaren —ehuneko 54,47— arteko aldea.

Montepio Orokorren kasuan, udalek orokorrean finantzatu beharreko ehunekoak ez du gainditzen urte bakarrean ere gehieneko zenbatekoa; hori dela eta, Gobernuaren finantzaketa ehuneko 35,7koa da eta udalena, berriz, ehuneko 64,3koa.

IV.5. BALIZKO AUKEREI BURUZKO ZENBATESPENAK

Defizitaren banaketarako zenbait kasu desberdin planteatu ditugu. Ez dugu Iruñeko Udalaren kasua bakarrean ere sartu, zeren eta montepio propioa baitu eta sekula ez baitu parte hartu Montepio Orokorren banaketan. Aitzitik, Tafallak eta Tuterak, montepio propioa duten arren, banaketa orokorrean parte hartzen dute: kasu batzuetan sartu eginen ditugu, beste batzuetan ez.

Zehazki, honako bost kasu hauek aurkezten ditugu:

- Defizitaren banaketa egin dugu udalenzako ezarritako gehienekoa aintzat hartuz baina ez modu orokorrean, baizik eta horietako bakoitzarentzat (13. ondorioa).
- 14. ondorioan, defizita biztanleriaren arabera banatu dugu, baina udalek enpresa-kuota bat ordainduta beren aktiboengatik.
- 15. ondorioan, kalkuluak aurreko kasuan bezala egin ditugu, baina Tafalla eta Tuterak kanpo utzita.
- Hurrengo kasuan defizita biztanleriaren arabera banatu dugu, baina Tafallako eta Tuterako montepioen defizita barne hartuz.
- Azkenik, 17. ondorioan, 2015eko defizitaren banaketa egin dugu azken hamar urteetako batez bestekoari erreparatuta.

Hamahirugarrena. Toki entitateek ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa orokorrean kalkulatu ordez, udal bakoitzaren gehienekoa kalkulatu ateratzen diren emaitzak aztertu ditugu. Horretarako, udal bakoitzak 2005ean ordaindutako zenbatekoak gaurkotu eta 2015erako gehieneko zenbatekoa lortuko dugu.

Honako hauek dira ateratzen diren emaitzak:

Entitate kopurua	2015eko egiazko zenbatekoa	Ordainketa, gehienekoa- rekin	Gehienekoarekin ordain daitekeen zenbateko handiena
32	7.840.614	6.008.959	6.008.959
238	10.266.549	10.266.549	13.986.054
270	18.107.163	16.275.508	19.995.013

Hau da, gehienekoak udal bakoitzari aplikatu izan balitzaizkio, 32 kasutan gutxiago ordainduko zuten: guztira, 1.831.655 euro gutxiago; 10.266.549 euro ordaintzen dituzten 238 udalek, berriz, 3.719.505 euro gehiago ordainduko zituzten.

Gutxiago ordainduko zuten udaletan, zenbateko hori 79 euro eta 313.307 euro bitartekoa da. Zenbateko handiago bat ordaintzeko tartea duten udaletan, zenbateko hori 38 euro eta 320.575 euro bitartekoa da.

Logikoa denez, ekarpenen arteko alde hori aurrekontu orokorren bidez konpentsatu beharko lirateke; hartara:

2005eko banaketaren oinarria	Nafarroako Gobernuaren finantzaketa	Udalen finantzaketa	Nafarroako Gobernua (%)	Udalak (%)
Gehienekorik gabe	6.464.257	11.642.906	35,7	64,3
Gehienekoarekin	7.642.011	10.465.151	42,2	57,8

Sistema honekin, udalek banakako gehieneko batekin jarri beharreko zenbatekoa aintzat hartuta, 32 udalek gutxiago ordainduko zuten eta gobernuak kopuru handiago bat emanen luke dirulaguntza gisa; baina Montepioaren egiturazko arazoek beren horretan jarraituko zuketena, funtsean aktiboen araberrako banaketatik heldu dena.

Hamalagarrena. Montepioaren defizita soilik biztanleriaren arabera banatuta ateratzen diren emaitzak kalkulatu ditugu, betiere aktiboak dauzkaten entitateek Gizarte Segurantzarenaren balio-idea den enpresa-kuota bat ordainduta. Enpresa-kuota teoriko hori aktiboek ordaintzen dituzten zenbatekoetatik abiatuz zenbatetsi dugu.

Kontzeptua	Zenbatekoa
Defizita	18.107.163
Zenbatetsitako enpresa-kuota	1.619.751
Banatu beharreko defizita	16.487.412

Logikoa denez, udal bakoitzak biztanleriaren arabera dagokion zenbatekoa finantzatu beharko luke, gehi bere aktiboengatik dagokion enpresa-kuota.

Honako hauek dira lortutako emaitzak eta 2015ean ordaindutakoarekiko alderaketa:

Udal kopurua	Ordaindu dutena	Ordainduko luketena	Aldea	Aldea
42	12.858.440	8.103.996	-4.754.444	<1
11	2.115.054	2.754.472	639.417	>1<1,99
196	2.070.641	4.120.713	2.050.072	1,99
21	1.063.028	3.127.983	2.064.955	>1,99
270	18.107.163	18.107.163	0	

Aktiboen arabera banaketa kendu eta banaketa biztanleriaren arabera egiten bada, nabarmen aldatuko da gaur egiten dena. Hartara, aktiborik ez duten 196 udalek lehen baino 1,99 aldiz gehiago ordainduko lukete. Igoera hori 2.050.072 eurokoa izanen litzateke. 42 udalek gutxiago ordainduko lukete, eta zenbateko txikiago hori 4.754.444 eurokoa da.

Lehen baino 1,99 aldiz gehiago ordainduko luketen 11 udaletan, igoera 639.417 eurokoa izanen litzateke; 1,99 aldiz gehiago ordaintzen duten 21 udalek 2.064.955 euro gehiagoko zenbatekoa jasanen lukete.

Hamabosgarrena. Halaber, Montepioaren defizita biztanleriaren arabera banatuta, baina Tuter eta Tafalla kenduta, ateratzen diren emaitzak kalkulatu ditugu, betiere aktiboak dauzkaten entitateek Gizarte Segurantzarenaren balio-idea den enpresa-kuota bat ordainduta. Enpresa-kuota teoriko hori aktiboek ordaintzen dituzten zenbatekoetatik abiatuz zenbatetsi dugu.

Kontzeptua	Zenbatekoa
Defizita	18.107.163
Tuterako eta Tafallako pentsioak	166.154
Defizita Tuterarik eta Tafallarik gabe	17.941.009
Zenbatetsitako enpresa-kuota	1.615.459
Banatu beharreko defizita	16.325.550

Logikoa denez, udal bakoitzak biztanleriaren arabera dagokion zenbatekoa finantzatu beharko luke, gehi bere aktiboengatik dagokion enpresa-kuota.

Honako hauek dira lortutako emaitzak eta 2015ean ordaindutakoarekiko alderaketa:

Udal kopurua	Ordaindu dutena	Ordainduko luketena	Aldea	Aldea
39	12.145.621	8.101.201	-4.044.420	< 1
14	2.827.874	3.747.677	919.803	> 1 < 2
196	2.070.641	4.553.378	2.482.738	2,2
19	612.772	1.538.753	925.981	> 2,2
Tafalla	201.416	116.288	-85.128	
Tutera	248.840	49.865	-198.975	
270	18.107.163	18.107.163	0	

Aktiboen arabera banaketa kendu eta banaketa biztanleriaren arabera egiten bada, nabarmen aldatuko da gaur egiten dena. Hartara, aktiborik ez duten 196 udalek lehen baino 2,2 aldiz gehiago ordainduko lukete. Igoera hori 2.482.738 eurokoa izanen litzateke. 39 udalek gutxiago ordainduko lukete; zenbateko txikiago hori 4.044.420 eurokoa da.

Lehen baino bi aldiz gehiago ordainduko luketen 14 udaletan, igoera 919.803 eurokoa izanen litzateke; 2,2 aldiz gehiago ordaintzen duten 19 udalek, berriz, 925.981 euro gehiagoko zenbatekoa jasanen lukete.

Tuterak eta Tafallak kopuru txikiagoa jasan beharko lukete, zeren eta beren pasiboen pentsioak banaketan dagokiena baino txikiagoak baitira.

Horri dagokionez, aipatu beharra daukagu Tuterako Udalak 80ko hamarkadan Montepio Orokorren banaketatik kanpo geratu nahi izan zuela, Tuterako funtzionarioek sortutako pentsioak bere gain hartuz; horretarako, auzitegietan erreklamazio bat aurkeztera ere iritsi zen, baina ezetsi egin zen.

Hamaseigarrena. Defizitaren banaketa kalkulatu dugu, Tafallako eta Tuterako montepio propioen defizita sartuz.

Kasu honetan, honako hau da montepioen defizita:

Montepioa	Zenbatekoa
Orokorra	18.107.163
Tafalla	797.234
Tutera	1.712.440
Guztira	20.616.837

Gutzizko defizita soilik biztanleriaren arabera banatzen badugu, honako hau izanen da emaitza:

Udal kopurua	Egungo kargua	Zenbatekoa zenbatespena	Aldea	Aldea
40	12.942.854	7.788.970	-5.153.884	<1
14	4.789.154	5.647.190	858.036	>1<2,49
214	2.882.547	7.173.211	4.290.664	2,49
2	2.281	7.466	5.185	>2,49
270	20.616.837	20.616.837		

Hau da, 40 udalek gutxiago ordainduko lukete: 5.153.884 euro gutxiago, hain zuzen; 14 entitatek 1 eta 2,49 halako bitarte gehiago ordainduko lukete: 858.036 euro gehiago, guztira; 214 udaletan, 2,49 halako gehiago ordainduko lukete, eta igoera hori 4.290.664 eurokoa izanen litzateke; eta, azkenik, bi kasutan igoera 2,49 aldiz handiagoa izanen litzateke: 5.185 euro gehiago, guztira.

Hamazazpigarrena. Azkenik, 2015eko defizitaren kalkulua egin dugu, azken 10 urte hauetako batez bestekoaren arabera. Entitate bakoitzak gutzizkoan duen garrantzi erlatiboa kalkulatu dugu eta ehuneko hori 2015ean udal bakoitzari aplikatu diogu. Gero, lortu dugun zenbateko hori zenbateko errealarrekin alderatu dugu:

Zenbat udal	Ordaintzen dutena	Ordainduko luke-tena	Aldea	Aldea (%)
52	1.353.215	2.323.433	970.218	>20
164	6.481.802	6.956.405	474.603	20 > 0
39	7.237.878	6.503.484	-734.394	0 > -20
15	3.034.268	2.323.841	-710.427	> -20
270	18.107.163	18.107.163	0	

Datu horietatik ondorioztatzen denez, 52 udaletan 970.218 euro gehiago ordainduko litzateke: aldea ehuneko 20tik gorakoa da; beste 164 udalek 474.603 euro gehiago ordainduko lukete: ehuneko zero eta hogeita bitarte gehiago. 39 kasutan, 734.394 euro gutxiago ordainduko lukete formula horrek: ehuneko zero eta ehuneko 20 bitarte gutxiago; azkenik, 15 udaletan 710.427 euro gutxiago ordainduko lukete: ehuneko hogeita baino gutxiago izanen dira txikiagoak zenbateko horiek.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga